

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

41/2020 Mozioa, uztailaren 6koa, Arabako Foru Aldundiak LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak hartu ditzan

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lehendakaritza, Euskara, berdintasun, Lankidetzeta eta Giza eskubideen I. Batzordeak, 2020ko uztailaren 6an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

41/2020 Mozioa, uztailaren 6koa, Arabako Foru Aldundiak LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak hartu ditzan.

Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako Lurralde Historikoko LGTBI kolektiboko pertsonen egoeraren diagnostikoa, beste erakunde, kolektibo eta gizarte-eragile batzuekin elkarlanean gauzatzen ari dena, bukatu ondoren jarduketan bide-orri bat egin dezala, diagnostiko horri eta herritarrek sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen eraginez pairatzen dituzten bazterkeria eta askotariko arazoei erantzuteko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 6a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA